BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/10/04

# Bizkaiko Batzar Nagusiek Argizaiola lehiaketa ospetsuko argazki aukeraketea erakutsiko dabe

Bizkaiko Batzar Nagusien Bilboko egoitzako erakusketa aretoak (Hurtado de Amezaga, 6), Argizaiola Lehiaketaren 39. edizinoan saritutako hiru argazkiak erakutsiko ditu datorren urriaren 31ra arte, eta baita lehiaketa ospetsu horretara aurkeztu diran beste argazki batzuen aukeraketea be. Bilboargazkiren, Bilboko Nazinoarteko Argazki Jaialdiaren, barruan dagon erakusketan batzen diran gai eta teknika anitzetako argazkiz osatutako bilduma da.

“Argizaiola 2019 Lehiaketa” erakusketea astelehenean, urriaren 7an, 19:00etan inauguratuko da, Aitor Arana lehen sariaren eta Oskar Gaskon eta Andrés Indurain accesit bien irabazleen eskutik etorriko diran proiekzinoagaz, hitzaldiagaz eta solasaldiagaz. Aurkezpen ekitaldia amaitzean, Argizaiola Lehiaketaren historiaren ganeko 3 CD lote zozketatuko dira.

Euskadiko Argazki Alkarteen Federazinoak antolatzen dau lehiaketa, eta bertara hainbat lehiaketetan saria lortu daben argazkilariak aurkeztu daitekez. Aurtongo edizinoan, Argizaiola 2019 Lehiaketan parte hartu ahal izateko aukerea emon daben txapelketak honeek izan dira: XXXIV. Bergarako Uria, XXVIII. Kirol Argazkigintza (Bergara), XLVI. Nazinoarteko Gipuzkoa Lehiaketa (Donostia), XIX. Legazpiko Uria, XXXI. Indalecio Ojanguren (Eibar), Tolosako Hiribildua 2018,  XXX. Zumaiako Uribildua, VII. Nikolas Lekuona (Ordizia), LIV. Beasaingo Uria eta Igartza Saria, III. Photoka Txapelketa (Gernika), XI. Derio, XVIII. Nazinoarteko ONCE: Danontzako mundua (Bilbo), III. Ramón Serrás (Zarautz), XIX. Irungo Uria, eta II. Amorebieta-Etxano.

Argizaiola 2019 Lehiaketara 39 egileren 245 lan aurkeztu dira. Aurkeztu diran eta saria lortu daben lan guztiak, App Storetik eta Google Playtik dobako ARGIZAIOLA 39 aplikazinoa jaitsiz ikusi ahal izango dira.

**ARGAZKI ERAKUSKETEA**
**ARGIZAIOLA 2019 LEHIAKETA**
Urriaren 31ra arte
Inaugurazinoa: Urriaren 7a, astelehena, 19:00etan
Lekua: Bizkaiko Batzar Nagusiak (Hurtado Amezaga kalea, 6. 48008 Bilbo).
Ordutegia: 9:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura
Sarrerea librea

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
04/10/2019

# Las Juntas Generales de Bizkaia exponen una selección de fotografías del prestigioso concurso Argizaiola

La sala de exposiciones de la sede bilbaína de las Juntas Generales de Bizkaia (Hurtado de Amezaga, 6) muestra hasta el próximo 31 las tres fotografías premiadas en la 39 edición del Trofeo Argizaiola junto a una selección de otras instantáneas presentadas a este prestigioso concurso. Son una colección de fotografías de temáticas y técnicas diversas agrupadas en una exposición que se enmarca dentro de Bilboargazki, el Festival Internacional de Fotografía de Bilbao.

La exposición “Trofeo Argizaiola 2019” se inaugura el lunes día 7 de octubre a las 19 horas con la proyección, charla y coloquio a cargo de los ganadores del primer premio, Aitor Arana, y de los dos accésit,  Oskar Gaskon y Andrés Indurain. Al finalizar la presentación se sortearán 3 lotes de CD de la historia del trofeo Argizaiola.

La Federación de Agrupaciones Fotográficas del País Vasco organiza este certamen, al que se pueden presentar fotógrafos y fotógrafas premiadas en determinados concursos. En esta edición, los concursos clasificatorios para el Trofeo Argizaiola 2019 han sido XXXIV Ciudad de Bergara, XXVIII Fotografía Deportiva (Bergara), XLVI Trofeo Gipuzkoa Internacional (San Sebastián), XIX Ciudad de Legazpi, XXXI Indalecio Ojanguren (Eibar), Villa de Tolosa 2018,  XXX Villa de Zumaia, VII Nikolas Lekuona (Ordizia), LIV Ciudad de Beasain y Premio Igartza, III Trofeo Photoka (Gernika), XI Derio, XVIII ONCE Internacional: Un mundo para todos (Bilbao), III Ramón Serrás (Zarautz), XIX Ciudad de Irún y II Amorebieta-Etxano.

Al Trofeo Argizaiola 2019 se han presentado 245 obras de 39 autores y autoras. Todas las fotos presentadas y premiadas se pueden ver descargando la aplicación gratuita ARGIZAIOLA 39 en App Store y Google Play.

**EXPOSICIÓN DE FOTOGRAFÍA**
**TROFEO ARGIZAIOLA 2019**
Hasta el 31 de octubre
Inauguración: Lunes día 7 de octubre, 19:00 horas
Lugar: Juntas Generales de Bizkaia (C/ Hurtado de Amezaga, 6. 48008 Bilbao).
Horario: Lunes a viernes de 9:00 a 20:00 horas
Entrada libre